

## NORBERE BURUAREKIN ETA BESTEEKIN HOBETO BIZITZEKO IKASTARO ESKAINTZA

Baketik zure herrian edo taldean ikastaro edo hitzaldi bat antolatzeko aukera ematen dizu, gai eta iraupen aldetik hainbat aukera eskainiz zure behar eta interesen arabera. Ikastaro edo hitzaldi bat antolatu nahi izanez gero deitu 943251005 telefono zenbakira edo idatzi info@baketik.org helbide elektronikora.

	Edukia	Nori zuzenduta
Gatazken lantze etikoa	Gure bizitza pertsonal zein profesionaleko proiektu onenak batzuetan blokeatu egiten dira gatazken ondorioz. Ezinezkoa da hauek saihestea, baina, posible dugu haien inertzia aldatzen ikastea eta zentzu etikoz erabakitzea.	Bere gatazkei hobeto aurre egiteko nahi dutenentzat edo hauek nola funtzionatzen duten jakiteko interesa dutenentzat.
Nola ez galdu iparra gure eguneroko bizitzan	Desorientazio handi batean murgildurik bizi gara. Zoriontsu izan nahi dugu baina ez dakigu nola. Ikastaroak gure zailtasunetan eta eguneroko erronken aurrean hobeto orientatzeko giltzariak eskaintzen ditu, gure bizitzako esperientzietan oinarrituz.	Bizitzaren zentzu eta norabidearen inguruan gogoeta egin nahi dutenentzat.
Sufrimendua ulertuz	Sufrimenduak lan asko ematen digu. Sufritzen dugu eta maite ditugun pertsonak sufritzen ikusten ditugu. Ikastaroak gure eguneroko bizitzan desiragarria ez den baina aldi berean saihestezina den errealitate hau hobeto ulertzeko aukera eskaintzen du.	Sufrimenduren bat nola jasan ikasi nahian dabiltzan pertsonentzat edo bere inguruan sufritzen ari diren beste batzuei lagundu nahi dutenentzat.
Pertsona izaten hezi	Ikastaroak hobeto bizitzeko, elkarbizitza hobetzeko eta hezteko proposamen etiko bat eskaintzen du, baliabide teoriko zein praktikoak emanez.	Gurasoak, hezitzaileak eta, orokorrean, hezkuntzarekiko interesa duten pertsonentzat.
Bizikidetzaren berradiskidetzea	Euskal gizartea, sufrimendu eta giza eskubideen urraketaz jositako hamarkaden ostean, bizikidetze berri bat eraikitzeo aukera baten aurrean dago. Ikastaroak, prozesu honen hiru gakoan inguruan gogoeta egin nahi du: humanizazioa, sufrimendua eta gizartearen parte-hartzea.	Gure gizartean bizikidetzea berreskuratzearen inguruan gogoeta egin nahi duten pertsonentzat.